

ALTZAKO IHAUTERIEN EGITARAUA

ERAKUSKETA

Bertan Euskal Herri zabalean ihauteri festa hauek nola bizi, zer berezitasun berezko eta berauetan zer usadio gorde edo galdu diren ikusteko parada izango duzue. Erakusketa sei panelez osatuta egongo da, panel bakoitzak herrialde bat ordezkatzeko duelarik.

NON IKUS DAITEKEEN?

OTSAILAREN 4tik 9ra "TXALAKA ELKARTEAN" (Larratxo pasealekua, 20)

OTSAILAREN 11tik 16ra "KASARES KULTUR ETXEAN"

BARRIKOTEA

Eguna: OTSAILAK 9.

Ordua: 21-etan.

Lekua: TXALAKA ELKARTEA.

Prezioa: 2.000pzta / 12 euro.

1.500pzta / 9 euro langabetuak.

Txartelak salgai: Elozegi, Zumardi, Txalaka, Ipotx eta Elizondon.

***OHARRA: Mozorroturik etor zaitezte!!**

Mozorro bitxi, orijinal eta landuenari sari bat emango zaio.

IHAUTERIAK ALTZAN

Denbora aldakor hauek zeharo desitxuratu dute ihauteria, izan ere garai batean festa hainbat OZTOPO eta MUGA gainditzeko modu edo aitzakia zen. Lehengo garaitan alde batetik janari eske ibiltzen ziren, Garizumako abstinentzi bezperetan aparteko oturuntza egiteko (ikusten denez horrek ez du gaur egun, gure kontsumo gizarte honetan, garai bateko zentzua nahiz eta eskeak eta jaiak bizirik iraun hainbat tokitan).

Landako komunitateak, otsaila heltzean azaroko txerri hilketaren emaitzak urrituz zihoazelarik, gazteek ihauteria zuten neguan dirua bildu eta oturuntza handi bat ospatzeko azken aukera. Eta bestetik, finkatutako arauak haustea festaren beste elementu nagusietako bat zen, egun gizarteak maila askotan ihesbide gehiago dauzka, gizarte hau ez da garai batean bezain ertsia. Bainan kontuz!!

Pentsakera bakarra eta uniformizazio kulturala nagusitzen ari den honetan (disidentziaren aurkako neurriak, konformismoa eta elkartasun eza, ...) finean, nortasun gabeko gizakia bultzatzen den honetan, ihauteriek ere badute galerarik, BERE IZAERA HAUSLEA eta NORTASUNAREN beherakada baitakarte.

Mozorroak oso antzekoak dira, Rio de Janeiro, Tenerifen edo Bilbon esaterako, ospakizun ekintzak zehatz-mehatz agertzen dira eta udala da paradajikoki festa hauen eragile eta sustatzaile nagusia. Festa hauen jatorria, erakunde ofizialekin bat ez datorrenean hain zuzen ere.



Zintzarrien soinua, haran osoan zabaltzen da eta mendietara igotzen, neguan lotan egon den natura ernaraziz, eta aldi berean, zurdazko isipua mugimenduarekin izpiritu txarrak izutu eta uxatzen dira.

